

**Ebazpena: R 151/2022**

**Espedientea: 6/2015**

Gasteizen, 2022ko azaroaren 22an.

Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunean aurreikusitako Arbitraje Batzordea osatzen duten Violeta Ruiz Almendral presidenteak eta Sofía Arana Landín eta Javier Muguruza Arrese batzordekideek erabaki hau hartu dute:

### **ERABAKIA:**

Bizkaiko Foru Aldundiak, (aurrerantzean BFA) EWSAren zerga-egoitza 2003ko irailaren 17tik aurrera aldatzearen inguruan, Zerga Administrazioiko Estatu Agentziarekiko (aurrerantzean ZAEA) planteatutako gatazkari buruz, zeina 6/2015 espediente-zenbakiarekin izapidetzen ari baita Arbitraje Batzorde honetan.

### **AURREKARIAK**

1.- EWSA 2000ko uztailaren 18an eratu zen. Planteatutako gatazkaren ondorioetarako, honako hauek dira EWSAren datu garrantzitsuenak:

- a) Egoitza soziala eta fiskala Zamudion (Bizkaia) du.
- b) EWSAk, 2003ko uztailaren 29an baimendutako eskrituran bere estatutu sozialetan egindako aldaketaren ondoren, honako hau du helburu soziala: hirugarrenei telemarketin-zerbitzuak ematea, era guztietako produktu edo

zerbitzuak sustatu, hedatu eta saltzeko; elkarrizketa pertsonalizatuak egitea eta ematea; multimedia-inguruneetan bezeroekin izandako deiak eta kontaktuak jaso eta sailkatzea; eta bezeroei arreta emateko zerbitzuak; merkataritzako eta industriako era guztietako produktuak saltzeko eta sustatzeko kanpaina komertzialak egitea; informatika- eta telekomunikazio-sareek sostengatutako produktuetarako eta zerbitzuetarako banaketa-kanalak ustiatzea; informazio- eta merkaturatze-kanalak sustatzea; intraneten, estraneten eta, oro har, Internet teknologia erabiltzen duten sistemen garapen-zerbitzuak ustiatzea; datuak, irudiak, soinuak eta multimedia-zerbitzu elkarreragileak transmititzeko informatika-seinaleak eta telekomunikazio-seinaleak daramatzaten zerbitzuak ustiatzea

**2.-** AISA merkataritza-sozietateak EWSAren kapital sozialaren % 100 erosi zuen salerosketa bidez, eta salerosketa hori eskritura publiko bihurtu zen 2003ko irailaren 17an. AISAren bulegoak Bizkaian daude, Zamudion (Bizkaia).

**3.-** EWSA ez dago alta emanda Bizkaiko Foru Ogasunaren Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan.

**4.-** 2003. urteaz geroztik, EWSAk ez du lantokirik izan Bizkaian.

**5.-** EWSAk Madrilen ditu zentralizatuta, zehazki, Pozuelo de Alarcón herriko P kalean, fakturak eta albaranak egitea, igortzea eta jasotzea, merkataritzako eta bankuko korrespondentzia, kontabilitate-liburuak kontabilitatea eta zaintza eta zerga-aitorpenen kopiak artxibatzea, lan-kontratuak sinatzea, nominak eta Gizarte Segurantzako kotizazioak kudeatzea.

EWSAko langileek Madrilen eta Valentzian dauden lantokietatik ematen dituzte zerbitzuak, 2003tik; Sevillako lantokitik, 2013tik; eta Murtziako eta Granadako

lantokietatik, 2014tik. Zentro horietan, hirugarren pertsonak egin dute ustiapen elektronikoko jarduera nagusia.

Erakundeak hainbat banku-kontu ditu irekita Madrilen, eta horien ahaldunek ez dute helbiderik Bizkaian.

**6.-** EWSA Bizkaian egoitza duten hiru pertsonak osatutako Administrazio Kontseilu batek administratzen du, eta bilerak Bilbon eta Madrilen egiten ditu. EWSAren ahaldunek Madrilen dute helbidea.

**7.-** 2012ko uztailaren 24ko eskritura publikoaren bidez, EWSAk egoitza soziala aldatu zuen: Pozuelo de Alarcón herriko F kalera (Madril), 2012ko irailaren 17an Merkataritza Erregistroan inskribatuta zegoen bezala, eta Merkataritza Erregistroaren Aldizkari Ofizialean argitaratu zen 2012ko irailaren 26an.

**6.-** 2014ko ekainaren 4an, BFAk ZAEARI jakinarazi zion EWSAren helbidea Madriler a aldatzeko proposamena, eta 2003ko irailaren 17tik aurrera izango zituen ondorioak erabakiak.

**5.-** Lau hilabete igaro ondoren, Ekonomia Itunarekin eta Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordearen Erregelamenduarekin bat etorrita, ZAEAK ez zion aipatu proposamenari erantzun, beraz, BFAk 2015eko otsailaren 5ean aurkeztu zuen gatazka Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordean.

**6-** Gatazka prozedura arruntaren bidez izapidetu da, eta, beraz, bete egin da ZAEAK alegazioak egin eta froga eta dokumentazio egokiak aurkeztu eta proposatzeko izapidea. ZAEAK izapide hori betetzeko epea luzatzeko eskatu ondoren, azkenean, amore emanda, onartu egin da BFAk proposatutako egoitza-aldaketa.

## ZUZENBIDEKO OINARRIAK

### 1.- Arbitraje Batzordearen eskumena

Arbitraje Batzordeak gatazka ebazteko eskumena du, Ekonomia Itunaren 66.Bat.c) artikuluan xedatutakoaren arabera; artikuluko horrek *zergadunen helbideratzeari buruz sor daitezkeen desadostasunak ebazteko eginkizuna* esleitzen dio.

### 2. - Amore ematea

Interesdunik eta, bereziki, zergapekoa bera aurkeztu ez denez, ZAEAk amore emateak, BFAk egindako helbide-aldaketaren proposamena onartuz, bi administrazioen arteko gatazka bertan behera geratzea eragin du, eta Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordearen aurrean bideratzen den prozeduraren xedea gerora desagertzea eta, ondorioz, artxibatzea ekarri du.

Horiek horrela, Arbitraje Batzordeak honako hau

## ERABAKITZEN DU

1.- Espedientea artxibatzea gatazkaren xedea gerora desagertu delako, ZAEAk amore eman baitu BFAk EWSA WEB, SAren helbidea aldatzeko egindako proposamenean; 2003ko irailaren 17tik aurrerantzean izango ditu ondorioak.

2.- Erabaki hau jakinaraztea Zerga Administrazioko Estatuko Agentziari, Bizkaiko Foru Aldundiari eta EWSAri.